

Aurrezki kutxek kostuak gutxitu eta gestioa hobetu egin behar dute

Berankortasunaren erantzukizuna kreditu entitateei egotzi die Luis Angel Rojok

Aurrezki kutxek kostuak gutxitu, zerbitzuen kalitatea hobetu eta gestioa egokitu beharra daukatela adierazi zuen atzo Luis Angel Rojo Espainiako Bankuko gobernadoreak, entitate hauek biltzen dituen konfederazioaren (CECA) urteko batzarrean.

MADRIL

Luis Angel Rojok kreditu entitateei egotzi zien maileguetan inbertitutako dirua berreskuratzekeo 'berankortasunaren' errua, beren «arriskuen gestio eskasagatik».

Espainiako aurrezki kutxen konfederazioaren LXVII. batzarrean egin zituen adierazpen hauek Espainiako Bankuko gobernadoreak.

Entitate hauek «kostuak gutxitu, zerbitzua hobetu eta beren estrategia, komertziala egokitu» beharra daukatela ohartarazi zien Rojok entitate hauetako arduradunei, batez ere bankuek beraien ohizko esparruak betez egiten dieten konpetentzia dela eta.

Gehiegizko komisioak edo zerbitzurik ematen ez duten kontzeptuen gaineko tasak ezartzearen arriskuez ere ohartarazi zien banku zentralako arduradunak entitateetako arduradunei, Efe berri agentziak jakinarazi zuenez.

Gehiegizko komisio hauek kobratuz entitateek kontsumitzaileen eskubideak errespetatzen ez badituzte, eskubide hauek betearazteko arauak ezarriko dituela mehatxatu zien gobernadoreak.

Neurri hauek hartu behar ez izatea «banku eta aurrezki kutxen esku» dagoela esan zuen Rojok CECAren batzarrean.

Maileguen kobrantzan berankortasuna gehitzen ari dela eta, «fenomeno hau arriskuen gestioari lotuta» dagoela adierazi zuen, «entitateek ez baitute jakin erreakzionatzen, merkatu askatasunak eta konpetentziak negozio arlo berrietara sartzen uzten zieten».

AURREZKI KUTXEN OZTOPOAK Azkenik, dibertsifikazio proiektuak «kontu handiz aztertu» behar izango dituztela azpimarratu zuen banku zentralako buruzagiak. Entitateen arteko bategite askotan egindako hutsegiteak zuzentzea ere eskatu zuen, bategite horien ondorioz kostuak asko gehitu direla argudiatuz.

German Perez Ollauri CECAko presidenteak ere, berankortasuna gehitzen ari dela eta,



Luis Angel Rojo Espainiako Bankuko gobernadorea eta Braulio Medel CECAko presidentea.

aurrezki kutxek gero eta dotazio gehiago egin beharko dituztela nabarmendu zuen eta entitate hauek gorde behar dituzten koefizienteengatik oso kezkatutik azaldu zen, koefiziente hauek Europako beste lurraldeetan baino askoz handiagoak izanik entitateen konkurrentzialtasuna oso

kaltetua dagoelako.

Aurrezki kutxei kaltea dakarkieten beste traba batzuk aipatu zituen Perez Ollaurik, hala nola babestutako sektoreen konpetentzia eta Altxor Publikoarena eta, «bitartean, herri-aurrezki planak ateratzeko garaia dela entzun behar dugu».

Azkenik, Braulio Medel CECAko lehendakariak ere parte hartu zuen batzarrean. Medelek agintaritzari «aurrezki kutxen ohizko izaerarekiko errespetua» eskatu zion eta «ortodoxia fundamentalistatik» urrundutako ekonomi politika beharrezkoa dela iritzi zion.

Celulosas del Nervionek 2.000 milioi galdu ondoren kapitala zabalduko du

BILBO

Celulosas del Nervion S.A. enpresak 2.138 milioi pezeta (97,18 milioi libera) galdu zituen iazko ekitaldian eta emaitza honi aurre egiteko bi mila milioitik gorako kapital zabalkuntza egingo du. Iurretako (Bizkaia) paperfabrikak ez du irabazirik izango sektoreak krisia gainditu arte.

Paper enpresako akziodunek atzo egin zuten Bilbon batzar nagusia eta bertan onartu zuten kapital soziala berriz ere handitzea. 1992aren bukaeran 1.450 milioi pezetako zabalkuntza egin zuen Celulosas del Nervionek. Horrela, azken operazioaren ondoren 6.871 milioi pezetako (312,31 milioi libera) kapital soziala izango du paper ekoizleak.

Paper industriak sekula izan duen krisirik sakonenean murgilduta, Celulosaseko arduradunek ez dute emaitza ekonomiko positiborik aurrikusten sekto-

rearen egoera aldatu arte. 1992ko galerak aurreko urtean izandakoak baino % 7,3 handiagoak dira, nahiz eta taldearen salmentak % 4,8 gehitu diren azken ekitaldian.

MARTXORA ARTE 515 MILIOIKO GALERAK

Francois Vittoz enpresako zuzendari nagusiak jakinarazi zuenez, aurtengo lehen hiruhilabetekoan 515 milioira iritsi dira galerak eta fakturazioa 1.998 milioikoa izan da.

Paperaren prezio apalek, di-ruaren kanbio gora-beherek eta finantza kostuen hazkundeak eragin handia izan dute, Francois Vittozen esanetan, Celulosaren emaitzetan. Pezetaren azken debaluazioak esportazioak bultzatu eta inportazioei ateak itxiko dizkiela espero du zuzendari nagusiak.

Iurretako papelerako plantila 300 pertsonaz osatuta dago gaur egun, baina zuzendaritzako ordezkariak erretiroen bitartez

lanpostuak gutxituko direla iragarri dute.

Celulosas del Nervionek zakuak egiteko paper lodia eta kartoia egiteko kraft liner-a produzitzen du. Konpainiaren % 49,40 Cristaleria Española S.A. enpresaren esku dago, beste % 26,36 La Cellulose du Pin-ena da (biak Saint Gubain taldekoak) eta azkenik, gainontzeko % 17,22 Banestoren Industria eta Finantza Korporazioak kontrolatzen du.

Aurtengo ekitaldian produktioaren kalitatea eta erregularitatea hobetzeko ikerketa lanetan jarraituko du Celulosas del Nervionek, zuzendari nagusiak akziodunei azaldu zenez. Era berean kostuak murrizteko plan- gintza jadanik martxan dagoela jakinarazi zien.

Paper sektoreak gaur egun dituen arazo nagusien artean gehiegizko eskaintza, inportazioak eta prezioen jaitsiera gogorra azpimarra daitezke. Azken urteotan salneurriek % 15 egin dute behera.

LABURREAN

ARABAN jarriko ditu Gamesak bi filialak

IBV Korporazioko kide den Gamesa taldeak Arabako Teknologi Parkean kokatuko ditu sortuko dituen bi sozietate filial berriak. Producciones Aeronauticas eta Desarrollos Aeronauticos de Euskadi izango dira Gamesak sortuko dituen enpresak, modu honetan Brasileko Embraer konpainiaren EMB-145 hegazkinaren osagaiak ekoizteko. Proiektuaren aurrekontua 24.500 milioi pezetakoa da ●

ESABEko langileen kontzentrazioak Bilbon

Esabe segurtasun enpresak 32 kontratu bertan behera uzteko aurkeztu duen enplegu-erregulazio espedientearen aurka protesta egiteko Central Hispano eta Santander bankuen aurrean eta BBKren egoitzaren parean bildu ziren langileak ELA, LSB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta. Finantza erakunde hauek dira Esaberen bezero nagusiak ●

FOGASak 51.000 milioi bideratu ditu soldatak osatzera

Fogasa Espainiako soldata garantia fondoak 50.810 milioi pezeta (2.309,54 milioi libera) bideratu zituen iaz enplegu erregulazioan zeuden beharginen eta ordaintzeko arazoak zituzten enpresetako langileen soldatak osatzera. Baldintza hauetan zeuden langileak 108.384 izan ziren iaz ●

JAPONIA da lurralderik konpetitiboena

Munduko lurraldeetan konpetitiboena Japonia izango da 1993. urtean, aurrekoetan bezala, eta ondoren EEBB eta Danimarka. Alemania, berriz, iaz bigarrenena zena, bostgarrenena izango da aurrean, Munduko Foro Ekonomikoaren (MFE) arabera. Erakunde honek dioenez, bategitea asko kostatzen ari zaio Alemaniako konpetitibitateari ●